

Sasi inkestak

Kleopatrak sugearen pozoia aukeratu zuen bere buruaz beste egiteko. Marilyn Monroek, berriz, pilula gaindosia. Izan da heriotzaren aurpegia trenaren abiaduraz moztortutua ikusi duenik. Edo leihotik behera

erortzen. Eskopetaz tiro egiten. Gasaren zikina arnasten. Nik neuk, heriotzarik seguruena eta lasaiena nahi nuke. Behin erabakia

hartuz gero, atzera bueltarik gabekoa. Loaldi goxoa eta betikoa eskainiko duten besoetan hartu nahi nuke atsedena. Pozoiz bustitako ezpainei musu emango nieke, goxoaren tentazioan erori eta, damutzeko betarik izan gabe, gozoaz disfrutatu ahal izateko.

Nik ez dut sekula suizidioan pentsatu... gaur arte. Inkesta baten emaitza irakurri ditut eta, horien arabera, frantsesen %13k aitortu dute noizbait izan dutela suizidatzeko asmorik. Ba nik ez dut sinesten. Sinesten ez dudana bezala Frantzian hiru seme-alaba dituzten bikoteen ia erdietan, hirugarrena ez dela senarrarena. Arrazoa, emakumezkoen infidelitate kasuen gorakada izugarria omen da.

Inkestak, inkestak eta estatistikak. Nik ez dut sekula inkestarik erantzun. Eta nire inguruan ere ez dut inor ezagutzen urtean zenbat liburu irakurtzen dituen edo zinera zenbat aldiz joaten den jakinarazi duenik. Kasualitatea? Bai zera! Desiatzen nago suizidioari, infidelitateari, politikari edo arropa dendetako ispilu farsanteei buruzko nire iritzia emateko. Non ote daude errealitatea zenbakien azpian moztortzen duten sasi-soziologoak?

Don Tancredo

• MARIO ZUBIAGA •

[EHUJO IRAKASLEA]

Espainiako tauromakian bada pertsonaia bitxi bat Don Tancredo deitzen dena. Plaza erdian jarrita, *seko kieto*, harria bezain geldi, halaxe lortu nahi du gizajoak zezenaren adarkada saihestea. Tipo barregarria da Don Tancredo. Zezenak harrapatzen ez duen gutxitan, toreroak jasotako txaloen oihartzunarekin konformatu behar izaten du.

Hortxe dugu Alderdi Popularra, bere ustez duintasunaren eta imotasunaren itxura emanaz, inguruko beste artista guztiak euren estrategiak zuhurki bermoldatzen ari diren bitartean.

Zezenketa honetan, EAJ toreroak agintzen du, noski.

Orain eskumarekin pase naturala, gero ezkerrekin trintxerazoa. EA subalternoa, PSOE pikadorea IU monosabio berriaren laguntzarekin, denak maestroaren esanetara daude.

Atzo banderilla bi, gaur pika zertxobait altxatu... guztiak ere zezenari belarriak kendu nahian. Zezenaren indultua ere polita izaten da. (Toreroak hala nahiko luke, eta abeltzainak zer esanik ez!)

Kontua da, aspertuta edo, erdi hilda zegoen zezenak adarkada bortitza bota duela, toreroa, pikadorea, Don Tancredo edo abeltzaina bera harrapatu nahian, batek daki. Zezena beti zezen. Eta toreroa, harrapaketak ematen duen amorruarekin, belauniko hasi da paseak ematen.

Hala ere, EAJren azken pase horiek ez dira Ibarretxeren odolberokada bat izan, ezta ere ikuslegoari egindako brindisa. Ibarretxek birtuterik baldin badu hoztasunarena da. Abuztutik hona denbora nahikoa izan du gaurko «sumindura morala» prestatzeko, eta hortaz EHrekin sinaturiko legealdi-akordioaren eteteak, urrats estrategikoa dirudi. Eskuak aske ditu orain EAJk. Gustokoa duen egoerara itzulita, euskal politikaren «zentralitatea» berreskuratu du.

Seguraski, pasa den udan EAJk argi azaldu zion ETari bere apustu soberanista konstituzionalistekin adostutako erreformaren bidetik joango zela. Erakunde zentral eta periferikoen arteko akordiorik ezean, desobedientzia buru-

tzea eskatzen du soberanismoak. Gatazka, hortaz. Eta, burujabetasun fiskalaren gaian ikusi berri dugun bezela, ez dirudi EAJk soberanismo gatazkatsua arazo sakonetara eramateko asmorik duenik. Espainiako gobernuaren aurreko amore emate lotsagarria «kontsentzuaren arrakasta» bailitzan saldu denean, beldur naiz ez ote den hori bera izango denbora gutxi barru arazo politiko nagusia konpontzeko erabiliko duten paradigma.

Gauzak zertxobait argitu dira hilabeteotan. EHren eredu konstituziogilea ezagutu ondoren, Jeltzaleek txosten politikoa plazaratu zuten, epe argirik gabeko erretorika soberanistaz jantzita. PSOE eta IUren «Estatu proposamena» federalista ezagutzen hasi gara behingoz, eta Don Tancredok ezin omen du, oraingoz eta agerian, ezer esan. Hain dago lotuta bere pertsonaiegatik... eta «kontraterroismo irmoaren» balizko emaitza elektoralengatik, noski.

Jar gaitezen bada eszenatoki baikorrenean, eta pentsa dezagun EAJren helburua EHk eskaini dionaren antzekoa dela gutxi gorabehera, eta, beraz, konstituzionalistekin adostu beharreko erreforma epe labur eta ertaineko pausoa besterik ez dela jeltzaleentzat. Demagun, PSOE edo PPrekin hartuko den konpromisoa, autodeterminazio eskubidearen aitortze nominalean eta Estatuaren erreforma federal sakonean datzala.

Horrela balitz, eskubide nazional osoak eskuratzeko epeak eta erakunde nazionalak jokatu beharreko papera izango lirakeke abertzaleok adostu beharreko gai nagusiak.

Alegia, EAJren ohiko eskizofrenia orekatzea izango litzateke asmoa: «ahal dena» segituan eskuratu, ongi da, hori izan baita jeltzaleen betiko kezka, baina era berean «nahi dena» lortzeko epeak eta esparrua ziurtatu (Udalbiltza?), Euskal Herriaren burujabetasuna utopia antzuan gal ez dadin, azken ehun urteetan gertatu bezala.

Epe kontua da, dena ez omen da orain posible. Baina ahalik eta azkarren izan dadin, eta ordutan baino, urtetan neurtzen omen duen Elorrietaren euskal erlo-

juak mende honetan jo dezan askatasunaren kanpaia, bultza egin beharra dago.

Egia da, neurri batean, ezker abertzalearen lan instituzionala EAJren eskutik joan beharko dela. Abertzaleen arteko batasuna bitxirik preziatuena bilakatu baita.

Dena dela, EHren oraingo ekintza ereduak ez dirudi oso eraginkorra: erakundeetako lana EAJren erritmo epelaren arabera, eta, bitartean mobilizazio adierazle hutsa kalean (hainbat kontzentrazio, manifestazio, greba «orokor», gosegreba...), inork kontrolatzen ez duen nohizbehinkako bortizkeriarekin nahastuta... Hiru adierazpide horien arteko dinamika ez da bateragarria, elkarrengandik urruntzen diren bideak dira.

Prozesu politikoa eragina lortzeko gizarte mugimenduek ekintza mota uztargarriak erabili behar dituzte. Joxe Azurmendik dioen bezala, demokrazia sofista honetan kontua ez da arrazoi hobeak izatea baizik eta diskurtso eraginkorrakoak egitea.

Eraginkorra, diskurtsoa bera koherente eta sendoa delako, edo medio indartsu baten bidez hedatzen delako. Hedabide indartsurik ezean, ezker abertzaleak diskurtso eta ekintzen arteko koherentzia gehixeago zaindu beharko luke.

Erakundeen erabilera arrunta gaitzetsi gabe, ekintza instituzional alternatiboak gizartearen mobilizazioarekin uztartzea komenigarria izan daiteke. Nola? Adibidez, erakundeen desobedientzia bultzatuz ahal den esparrutan, udaletan eta Udalbiltzan besterik ez bada behintzat, eta aldi berean, gizartean sor daiteken desobedientzia soberanista oro erakundeetatik babestuz, EAJri zeharka begiratu gabe, baimen eske.

Ezbairik gabe, abstentzioarena izan da ezker abertzaleak aspaldian bultzatu duen ekimenik ausartena, baina horrekin batera Espainiako sistema politikoa gehiago kaltetuko duten proposamenak bultzatu beharko lirakeke: nortasun agiri nazionalaren inguruan ABK-k antolatu duen ekimena, esaterako.

Ea ez den beste Don Tancredorik agertzen euskal plazan. Nahikoa dugu bibotetunarekin.

...hemeroteka

■
Elhuyar

Ordenagailuez harantzago

FERNANDO MORILLO

Aditu handiek diotenez, *hacker* (informatika sareetako piratak) onak, sistema batera sartzea irmoki deliberatzen duenean, ez dago ezer bere asmoari uko egina-zariko dionik. (...) *Hac-*

ker-ei egozten zaien sakaketa errepikatuena, ezbairik gabe, eragiten dituzten diru-galerena da. Beraien ustez, ordea, hori ez da guztiz egia. Are gehiago, guztiz alderantzizkoa litzateke. Banketxe zein gobernuetara sartu ostean, dituzten segurtasun faltez ohartarazten ei dituzte, hurrengoan prestatuago egon daitezten. (...) Gobernu botereitsuenei dagokienez, sarri egiten dutena *hac-*

ker-ak eurak kontratatzea da, besterik gabe, balizko gerran, etsaia-ren sistema informatikoak suntsi ditzaten (eta etsaien *hacker*-en erasoetatik, norberare-nak babes ditzaten, noski). Zenbaitek diotenez, etorkizuneko gerran, askoz eraginkorragoa litzateke *hacker* on bakar bat, gudaroste osoa baino. Ordenagai-luetako *zientzilariak*, bada, oso preziatuak izaten hasi dira.

raza inferior



Beheko arraza. Goiko arraza.



raza superior

EL ROTO
EL ROTO/EL PAIS